



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Dada Masilok, puntetako balleta, dantza garaikidea eta Afrikako eraginak birtuosismoz nahasten ditu *Beltxargen Aintzira* harrigarrian

- Hegoafrikako koreografo eta dantzariak arrakasta handia lortu du bizitasunez, dibertsioz eta sedukzioz beteta dagoen *Swan Lake* lanarekin, *Beltxargen Aintziraren* bere bertsio harrigarriarekin.
- Ikus-entzuleek ostiralean, otsailaren 1ean, eta larunbatean, 2an, ikusi ahal izango dute Dance Factory Johannesburg konpainiaren ikuskizun bikaina, 19:30etan bi egunetan.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 28an.- Kulturaren munduan eta baita, zelan ez, balletaren eta dantzaren mundu espezifikoa, ezinbestekoa den izenburuetako bat Arriaga Antzokira helduko da: *Beltxargen Aintzira*. Eta bertsio harrigarria, lehen mailakoa, helduko da, **Dada Masilo** koreografo eta dantzari hegoafrikarraren eskutik. Adituen iritziz, azken hamarkadetan Afrikan sortu den dantza artista interesgarrienetakoa da. Bera da Arriaga Antzokian asteburuan, ostiralean, otsailaren 1ean, eta larunbatean, 2an, hain zuzen ere, 19:30etan, ikusi ahal izango dugun *Swan Lake* (Beltxargen Aintzira) honen koreografiaren sortzailea (eta dantzari nagusia, bakarkako lan harrigarriekin).

Europako ikusleentzat ia ezezaguna den arren, Dada Masilo (Soweto, 1985) koreografo hegoafrikar gaztea ospe handia ari da lortzen nazioarte mailan. Izan ere, sarri askotan deitzen dute Estatu Batuetan dantza tailerrak eskaintzeko. Ballet klasikoaren bere interpretazio paregabe eta berritzaileek aho bateko txaloak jaso dituzte. Hori da *Swan Lake* honekin gertatu dena, denboraldiko ikuskizun harrigarrienetakoa, Lyongo Dantza Biurtekoan eta Pariseko Musée du quai Branly izenekoan arrakasta lortu ondoren Arriaga antzokira helduko dena.

Errespetua eta berrikuntza

Hamaika dantzari afrikarrez osatutako **Dance Factory Johannesburg** konpainiarekin, Dada Masilok klasiko handi hori bereganatu du, bere ezaugarriekin, Tchaikovskiren musikarekin, tutuekin eta puntako zapatillekin. Eta klasikoaren erabateko ezagutza eta errespetu horretan abiatuta, izan ere Dada Masilok asko miresten ditu ballet klasikoak (*Romeo eta Julieta* egin zuen 2008an, eta *Carmen*, 2009an), artistak molde estetikoak eta artistikoak apurtzen ditu, aire eta bizitza berria emanaz, sexuen eta generoen gaia lantzean, eta baita homofobiarena ere, HIESak asko zigortutako herrialde batean. Bere koreografian birtuosismoz nahasten ditu puntetako dantza eta dantza garaikidea Afrikako eragin indartsuekin, eta hori guztia energia lehegarriz eta umore bikainez. Fusio horren emaitza, Beltxargen Aintzira ezagun bezain harrigarria da. Laburbilduz, *Swan Lake* bizitasunez, sedukzioz eta dibertsioz betetako lana da, eta hori izango da,

hain zuzen ere, Arriaga Antzokian eskainiko diren bi emanaldietara doazen ikusleek sentituko dutena.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 42 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Dada Masilo's ***Swan Lake***

Koreografia: Dada Masilo

Dance Factory Johannesburg

Dantzariak

MC/Siegfrieden ama - **Liyabuya Gongo**

Odette - **Dada Masilo/Ipeleng Merafe**

Siegfried - **Xola Willie/Tshepo Zasekhaya**

Odile - **Llewellyn Mnguni/Thami Tshabalala**

Siegfried's Father - **Henk Opperman**

Odette's Mother - **Khaya Ndlovu/Zandile Constable**

Emakume beltzargak - **Ipeleng Merafe, Khaya Ndlovu, Zandile Constable, Liyabuya Gongo**

Gizon beltzargak - **Llewellyn Mnguni, Thami Tshabalala, Tshepo Zasekhaya, Xola Willie, Steven Mokone, Lwando Dutyulwa**

Musika

Tchaikovsky, Rene Avenant, Camille Saint-Saens, Arvo Part eta Steve Reich*

(*Hendon Music, Inc.-rekin sinatutako akordioaren bitartez, Boosey & Hawkes-en, editorea eta egile eskubideen jabea den taldeko enpresa)

Jantzien diseinua: Dada Masilo, Suzette le Sueur

Jantziak egitea: Ann Bailes

Ekizlea & Argiztapen diseinatzailea: Suzette le Sueur

Dada Masilo's SWAN LAKE lana Arteen Nazioko Jaialdiak (Hegoafrika) agindu eta estreinatu zuen 2010ean.

Ordezkarria: Sarah Ford – Quatenaire

Espainiako ordezkarria: YSARCA Pilar de Yzaguirre

Informazio gehiago:

Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus